

Kati-Katixa informazio bila

Kaixo, kaixo, lagunok!

Hementxe naiz berriro ere. Ikusi al zenuten nire aitak grabatutako bideoa? Azken aldian iraultzaile dabil. "Nik ere izan nahi dut youtuber". Gaixoak oso adin txarra dauka; zer egingo diogu? Nik bideoak jartzen lagunduko diot. Nik neureak jarriko ditut eta bakea. Barregarri geratu nahi badu, ba... hor konpon!

Baina gaurkoan sekretutxo bat kontatuko dizuet. Gure inguruan dauden prokrastinatzaileetan prokrastinatzaileena, zeuen begien bistan daukazue: NI NEU.

Prokrast... zer? Esango duzue batzuek, ezta? Ba, oso modu errazean azalduko dizuet zer den: gauza guztiak beti azken momenturako uzten dituen horietakoa naiz ni, kar-kar... bai, bai, bai... Zuetako batzuk ere ni bezalakoak zarete, seguru!

Tira, ba, gauza da, urtero ekintza piiiiloa egitea gustatzen zaidala, eta dena azken unerako uzteko eta uzteko mania horrekin, azkenean, ez dut inoiz ezer gustukoa egitea lortzen, eta, iristen naizenerako... ez dago izena emateko tokirik!

Baina aurten hori bukatu da, bai horixe! Informazio-orri mordoa eskuratu ditut, begira zenbat... Gaur bertan den-dena irakurri eta di-da izena ematera joango naiz. Aurten espezial ibiliko naiz aisialdian!

Ea ba zer dioen honek. Hara, bi asteburutan abentura-kirola euskaraz eta lagunartean egiteko aukera! Ui, ederra!!!... bai, bai, hau gustatzen zait: rafting-a, ibaian barrena... ea zer gehiago... Arroila-jaitsiera, bueno, uretan hau ere. Baina ez dakit ba nik, e, putzuetara salto egitean gaizki kalkulatu gero... Ai ama, eta zubi-saltoa ere egingo dute... ui, ui, ui, hori bai ezetz! Eta ez da koldarra naizelako, baina bat-batean soka askatzen bada? Zer? Akabo Katixa! Ez, ez, ez, nik oraindik gauza handiak egin behar ditut bizitzan; ezin dut nire etorkizuna horrela arriskuan jarri, ez, ez...

A, begira, honek interesgarria ematen du: Etorri gurekin bideo-jokoetan jolastera, euskaraz eta giro bikainean! Bueno, bideo-jokoak gustatzen zaizkit, baina edozeinekin online jokatzeko aukera badut, eta haraino joatea merezi du? Ez dakit ba! Gainera, asko haserretzen naiz galtzen dudanean. Erotzat hartuko naute; ez dut uste lagunik egingo dudarik...

Hala, ba, ea beste honek zer dioen: Musikaz eta dantzaz gozatzeko aukera paregabea, etorri gurekin ederto pasatzera! Aaaa rockstar bat izan! Horixe da nik nahi dudana!!

Bai, baina oso belarri txarra daukat...

Aiii... ez dakit zer egin.

Ai ama! Baina begira zer ordu den! Gaur ez dut astirik izango... Tira, bihar jarraituko dut, bai? Are, aio lagunok!